



19 AZAROA
> 10:00

EKITALDIA

GK Recycling Top: HABIC, (Tabakaleran)

Bisitaldia Habice elkartera –ekipamenduaren, zuraren eta diseinuaren sektoreko klusterra –, bertatik bertara ezagutzeko Gipuzkoako altzarien, diseinuaren eta arkitekturaren sektorea egiten ari den ahalegina, bere jardunean iraunkortasun irizpideak sartzeko.

Recycling Top-ak GK Recycling-eko kideen arteko topaketak dira, eta xedetzat dute enpresen arteko informazioaren eta ezagutzaren truke aktiboa ahalbidetzea, sinergiak sortzea eta irtenbide lehiakorrenak identifikatzen lagunduko duten eredu erreplikagarriak aurkitzea.



20-26 AZAROA NOVIEMBRE

> 11:00-18:00 – Ugartemendia Pl.

ERAKUSKETAK

GK Recycling-en karpa -Boulevarden egongo da- erakusleiho ezin hobea da Ekonomia Zirkularra enpresen errealitatean nola gauzatzen den ikusteko, ukitzeko eta ulertzeko. GK Recycling Birziklapen Klusterreko hamabi enpresek erakutsiko digute zer produktu eta prozesu egiten dituzten irizpide ekologikoak eta zirkularrak kontuan hartuta.

Hainbat sektoretako 20 enpresek hartuko dute parte:

PLASTIKOA:Ekomodo enpresak, plastikozko botiletatik abiatuta, kontsumo-merkatura bideratutako produktu birziklatuak sortzen ditu, hala nola poltsak, ordenagailu-zorroak edo motxilak. **Sodesa** packaging ekoizlea da, eta 2016an hasi zen eraldatzen: plastiko birjina erabiltzen zuen bere produktuak fabrikatzeko kasuen % 100ean, eta 2021eko lehen seihilekoan, erabilitako lehengaiaren % 88 PET birziklatua izan da.

ERAIKUNTZA: Asfaltia-Campezo Taldea, obra zibil eta eraikuntza jasangarrian espezializatua. Eta **Asmatu**, azpiegitura berdeetan espezializatutako ingeniari; ingurumen-aholkularitzan, eraikuntza eta eraikingintza jasangarrian eta hasieratik ekonomia zirkularraren eta klima-aldaketaren printzipioak integratzen dituzten proiektuetan egiten du lan.

ZERBITZUAK: Teknimap, bere bezeroen ingurumen-jokabidea hobetzeko lan egiten duen eta haiekin lankidetzan aritzen den enpresa, haien proiektu guztiei jasangarritasun ikuspegia emateko eta zirkulartasun irizpideak sartzen laguntzeko. Eta **Bilibin**, enpresetan ekonomia zirkularraren eraldaketa aktibatzen laguntzen duena.

HONDAKINAK: **Ekogras**, olioak birziklatzen eta bioerregai bihurtzen espezializatutako enpresa; produktu lerro berriak sartzen joan da, kafe-kapsulen eta -hondarren birziklapenetik abiatuta (Kafea Project).

Ferrovial taldeko Cespa enpresa, estatu mailan hondakinak kudeatzen eta tratatzen dituen enpresetako bat.

Ekotrade enpresak Astigarragako lantegian biltzen, sailkatzen eta birziklatzen ditu materialak, besteak beste, errepideetan eta urbanizazio obretan erabiltzen diren agregakin birziklatuak ekoizteko.

Masermic enpresak sentso-re adimendunen bidez hondakin-dukiontzia monitorizatzeko aukera ematen duten sistemak eskaintzen ditu, betetze-maila edo zaborra zer ordutan uzten den neurtu eta, horrela, birketa-sistemak optimizatu ahal izateko.

GIZARTE ERAKUNDEAK: **Sin desperdicio**, Emausek sortutako poltsen eta osagarrien marka. Eta **Dendar-tean**, ostalari, merkataria, zerbitzu-enpresa eta autonomoen elkarteak, 3.000 enpresa txiki biltzen dituen, bere kideen artean jasangarritasuna sustatzeko helburuarekin.



20-26 AZAROA
> 11:00-18:00 – Ugartemendia Pl.
ERAKUSKETAK

III. EDIZIOA EDICIÓN

Ekonomia zirkularra modelatzen

Erakusketan ikusgai egongo dira Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleen lanak, ekonomia zirkularra edo birziklapena ulertzeko modua islatzen dutenak. **Edizio honetako sariak azaroaren 26an emango dira, 12:00etan, karpan bertan.**

Gipuzkoako 13 prestakuntza zentrok hartu dute parte:

CPIFP LA SALLE-BERROZPE LHIPI

CIFP ARETXABAETA LANBIDE ESKOLA LHII

CIFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHII

CPES ORTZADAR BHIP

CIFP DON BOSCO LHII

CPES CENTRO FORMACIÓN MENDIBIL FORMAZIO ZENT. BHIP

CIFP KARDALA LHII

CPIFP OTEITZA LIZEO POLITEKNIKOA LHIPI

CPFPB PEÑASCAL TOLOSA OLHIP

CIFP DE INNOVACION SOCIAL LHII

CIFP ARMERIA ESKOLA LHII

IES PLAIAUNDI BHI

IES OÑATI BHI



29 AZAROA

> Garbera Merkatal Zentroa

MODA JASANGARRIA

Bigarren eskuko denda berria Garberan

Garberak doan lagako dio Emausi bere merkataritza-guneko lokal bat, bigarren eskuko arropa denda bat jartzeko. Denda hori zabalik egongo da datozen bi hilabeteetan Garberan.

Moda jasangarriari balioa ematearen aldeko apustu garbia, bigarren eskuko arropa erosteko aukera herritarrengana hurbilduz Gipuzkoako merkataritza-gune handienetako batean.

Azaroaren 29an inaugurazio instituzionala egingo da Ingurumen Departamentuaren, Garberaren eta Emausen eskutik.



22 AZAROA
> 12:00
Jargi aretoa, GFA

AINZATESPEN EKITALDIA

Gipuzkoako Elikagai Bankua

Gipuzkoako Elikagai Bankuaren "Azken minutua" ekimenean laguntzaile gisa jardun diren enpresak aintzatesteko ekitaldia.

AINZATETSITAKO ENPRESAK:

Eroski, Mercadona, Uvesco, Carrefour, Ausolan S. Coop, Frutas Landetxa SL, Interal, Brioche Pasquier Recondo, Kaiku Km 0 SL, Angulas Aguinaga, Aldi, Alcampo, Frutas Adarra eta Patateros Solidarios.

AIPAMEN BEREZIA:

Lurrarte SL eta Asprocan



Gipuzkoako Foru Aldundia
Igarumen eta Obra Hidraulikoko Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



23 AZAROA
> 18:00 – Impact Hub

TOPAKETA

Ekonomia zirkularrari buruzko elkarrizketak lurraldeko eragileekin eta Surfriderrekin

"Kostaldea eta zu" proiektuaren testuinguruan, topaketa ireki batzuk antolatu dira herritarrentzat, Gipuzkoan itsas zaborren inpaktua murrizteko lan egiten duten eragileekin hitz egiteko eta haien esperientzietatik eta erronketatik ikasteko.

Saio honetan bi eragile elkarrizketatuko dira: **Gaea Elkartea**, itsas ingurunearen kontserbazioa eta gizarte sentsibilizazioa sustatzen dituen, eta **Irri Sarri**, eramateko kafe-ontzien alternatiba gisa sortu zen proiektua.



24 AZAROA NOVIEMBRE

Basque Culinary Center

> 9:00 JARDUNALDIA

Sukaldaritza jasangarria

Gipuzkoako Foru Aldundia, Basque Culinary Centerrekin batera, azpiproduktuak berrerabiliz sorkuntza gastronomikoari buruzko ikerketan oinarritutako proiektu batean ari da lanean. Aurtengo jardunaldiaren helburua da "gastronomia aldaketarako motor gisa" aldarrikatzea, eta xedetzat du eragile publiko eta pribatuen arteko aliantzak sustatzea, indarrak batu eta jasangarritasunaren mezua sustatzeko. Ekitaldi gastronomikoen eredu berriek bilatzen dutena da ez soilik ezagutza norabide bakarrean zabaltzea, hau da, adituengandik herritarrengana, baizik eta herritarrek ere jardueretan parte hartzea, iritzi-trukean parte hartzen dutenen ikuspegiak aberasteko, bi norabidetan. Aurten, herritarrek dinamiken garapenean modu aktiboan eta parte-hartzailean inplikatzeko tailerrak diseinatuko dira.



2021.XI.24 BASQUE CULINARY CENTER Donostia

GIPUZKOAKO ELIKAGAI
BANKUAREN ALDEKO
AFARI JASANGARRI
ETA SOLIDARIOA

CENA SOSTENIBLE Y
SOLIDARIA EN APOYO
AL BANCO DE ALIMENTOS
DE GIPUZKOA



24 AZAROA

Basque Culinary Center

> 20:00 AFARI SOLIDARIOA

Gipuzkoako Elikagai Bankuari laguntzeko afari jasangarri eta solidarioa

Gipuzkoako Elikagai Bankuaren aldeko afari jasangarri eta solidario hau egiteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan: jasangarritasuna, ekoizpen ekologikoa, 0 km eta elikagairik ez xahutzea. Bestalde, biltzen den diru guztia erakunde horretara bideratuko da.



24-28 AZAROA NOVIEMBRE
> Sagues

“MAYOR IMPACTO CIUDADANO” SARIA GIPUZKOARI

Munduko edukiontzirik handiena

Ecovidrio enpresak «Mayor impacto ciudadano» saria eman dio Gipuzkoari, birziklapenarekin eta jasangarritasunarekin hartutako konpromisoagatik.

Horren harira, beirazko ontzien munduko edukiontzirik handiena jarri da Donostiako Sagues auzoan, gipuzkoarrek beirazko ontzien birziklapenean erakutsi duten ahalegina eta iraunkortasuna islatzeko.

Era berean, sentsibilizazio tailerrak egingo dira herritarrei -batez ere txikienei- zuzenduta, hondakinen prebentzioa areagotzeko eta herritarren kontzientziazioa bultzatzen jarraitzeko.

Azaroaren 25ean, osteguna, inaugurazio instituzionala egingo da Ecovidrio enpresako ordezkariekin.




25 AZAROA
> 10:00 – Scientia Karmelo Ikastetxea

AIRE ZABALEKO IKASGELA

Zirkuluan aurrera

Scientia Karmelo ikastetxean, ingurumen hezkuntza bere hezkuntza proiektuaren ardatz nagusi izaten ari da.

Horretarako, Ingurumen Departamentuak aire zabaleko "ikasgela" bat eraikitzen lagundu du: naturarekin kontaktuan dagoen hezkuntza-espazio berri bat, ekonomia zirkularrarekin lotutako kontzeptuak ukitu eta sentitzeko gune bat.



26 AZAROA
> 9:30

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola

JARDUNALDI TEKNIKOA

Ekonomia zirkularra ingeniartzan

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak Ekonomia Zirkularraren Ikasgelan garatzen ari diren proiektuak erakutsiko ditu. Proiektuek hainbat esparru ukitzen dituzte, hala nola 4.0 industria, material berrien bilaketa eta bizi-zikloen azterketa.

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Ekonomia Zirkularraren Ikasgela 2020/2021 ikasturtean jarri zen abian, Ingurumen Departamentuaren laguntzarekin. Ikasgelaren helburuak dira, batetik, lurraldeko enpresetan ekonomia zirkularraren garapena kudeatzeko gai diren profesionalak prestatzea, eta, bestetik, baterako ikerketa proiektuetan lankidetzaz bultzatzea.



26 AZAROA
> 15:30

/ Gunea aretoa, GFA

MANIFESTUA SINATZEA

GK Green Fashion:

Izan aldaketaren parte

Manifestu hau sinatuz, GK Green Fashion -Gipuzkoako moda jasangarri eta lokalaren klusterra- osatzen duten markek dei bat egin nahi diete herritar guztiei: "Zerbait kontsumitzera zoazen bakoitzean, pentsatu ondo; izan ere, zure esku dago, eta benetan merezi duen zerbait babestu dezakezu".

vayas a consumir algo, porque en tus manos tienes el poder de apoyar algo que merezca la pena".

GK Green Fashion Gipuzkoako moda jasangarriaren klusterra da, eta 2016an sortu zuen. Helburu hauek ditu:

ingurumenaren aldeko politikak babestea, tokiko enplegua sustatzea eta Gipuzkoako ehungintza sektorea bultzatzea.



12 ABENDUA
> **12:30** – Miramar jauregia

MODA DESFILEA

Moda jasangarriaren VI desfilea

Moda jasangarriaren desfilea, GK Green Fashion -Gipuzkoako moda jasangarriaren klusterra- osatzen duten diseinatzaileen bildumekin.

AEG UPCYCLING - AKUKUNA DIY - AMARENAK - ELI TWO FANNY ALONSO - KOÖL - LAS COSAS
DE VALEN - LAZA CLOTHING
LEIRE SANTILLÁN - LUHEI - MAIDER ALZAGA - MINUSSE - ROYO SANTA CLARA - SIN DESPERDICIO -
TELARISTA URBANA